




GIPUZKOAKO FORU OGasuna HACIENDA FORAL DE GIPUZKOA

# Gida azkarra



TicketBAI GIPUZKOAN

- 01 Eskatu zure ziurtagiri elektronikoa (ez baduzu)**  
[IZENPEren orrian](#) BakQ bat eskatzeko informazio guztia
- 02 Sartu [FakturaBAIn](#)**  
Esteka gogokoetan gordetzea gomendatzen dizugu
- 03 Osatu edo errepasatu jaulkitzaile gisa dituzun datuak**  
Jaulkitzaileen kudeaketa atalaren barruan
- 04 Eman alta zure ohiko bezeroak**  
Fakturretan erraz erabili ditzakezu
- 05 Fakturaren zirriborroa sortu**  
Zirriborroak nahi beste aldiz berrerabil ditzakezu
- 06 Faktura jaulki edo sortu**  
Ziurtagiria erabiliz sinatuta



FakturaBAI



Faktura jaulkitzaileen kudeaketa



Bezeroen kudeaketa



Fakturaren kudeaketa



**TicketBAIn zaude jada**

Oharrak:



Faktura asko jarraian jaulkitzen badituzu eta BakQ baduzu, [Izenperen Txartela Birtuala](#) erabiltzea gomendatzen dizugu. Nahikoa da pasahitza behin sartzea, ez duzu pasahitzik sartu behar sinadura bakoitzean.



EGOITZA ELEKTRONIKOA

Sartu [GipuzkoaAtarian](#) TicketBaira bidali dituzun fakturak kontsultatzeko eta ikusi dena ondo dagoen.

## 01 Eskatu zure ziurtagiri elektronikoa

Hainbat ziurtagiri elektronikoko baliozkoak dira, hala nola, Izenperen txartel berdea, Izenperen BakQ, NAN elektronikoa, FMNTren ziurtagiria...




Ziurtagiririk ez baduzu, Izenperen BakQ eskatzea gomendatzen dizugu.



[Izenperen webgunean](#) ziurtagiria eskatzeko informazio guztia.

## 02 Sartu FakturaBAIn

FakturaBAIn webgunetik <https://www.gipuzkoa.eus/fakturabai> sartu [Zergabidera](#) (Zergabidera sartzeko URLa gogokoetan gordetzea gomendatzen dizugu)



Sakatu «SARTU» ZIURTAGIRIA, BAKQ ETA BAK eremuan, eta aukeratu «BakQ».




Erabiltzaileari eta pasahitzari buruzko informazioa osatu beharko duzu. Eta SMSa jasotzen duzunean, sartu zenbakizko kodea.

NAN / AIZ	<input type="text" value="12345678X"/>
PASAHITZA	<input type="password" value="*****"/>


Mesedez, sartu kodea jarraitzeko

KODEA

Txartel birtuala erabiltzen baduzu, ziurtagiri digitalen bidez sartu behar duzu, eta nahikoa da ziurtagiria hautatzea.




FakturaBAIn sartu gara, hasierako pantaila erakusten zaigu, aukera nagusiekin.



### 03 Fakturen jaulkitzailearen datuak konfiguratu

Fakturen jaulkitzaileak kudeatzeko pantailara sartzeko, sakatu «ZERRENDA».




Osatu honako datu hauek:

Jaulkitzailearen helbidea, faktura guztietan inprimatuko dena FakturaBAIren datuen barruan:

- Fakturretan inprimatzeko logotipoa
- Fakturen hizkuntza lehenetsia: euskara, elebiduna-eu edo en-eu.
- Helbide elektronikoa eta telefona (inprimatuko dira)
- Ordaintzeko modua bezalako informazioak adierazteko faktura-oina

### 04 Alta eman zure ohiko bezeroei

Bezeroak kudeatzeko arloaren barruan, sakatu "BERRIA"



Bete bezeroa identifikatzeko datuak:

- IFZ, izen-abizenak edo sozietatearen izena
- Inprimatzeko hizkuntza espezifikoia

Bezeroaren helbidearen datuak (inprimatuko dira)

Helbidea


Eta harremanetarako datuak (ez dira inprimatzen)

Harremanetarako datuak

## 05 Faktura-zirriborroa sortu

Interesgarria da ohiko fakturen zirriborroak izatea, askotan errepikatzen direnak.

Menu nagusiko fakturen kudeaketan aukeratu «Faktura Berria».



Fakturaren oinarritzko informazioa osatu:

- Deskribapena
- Bezeroa
- Eragiketaren data

Faktura-lerroak gehitu:

- Lerroaren deskribapena
- Kopurua, prezioa, deskontua, BEZA

Fakturaren datu nagusiak

Xehetasun lerroak

+ Gehitu lerroa + Gehitu testu-lerroa

Berrerabili nahi dugun faktura mota bakoitzeko zirriborro bat beharko dugu.

## 06 Faktura jaulki


Zirriborro batetik abiatuta, "Berrerabili" ekintza sakatuko dugu

ID	Bezeroa	Deskribapena	Aldak. Data	Guztira	Mota	Ekintzak
2943		Zirriborroa: 1. mota	2022/09/03 11:09	0,00€	Sinplifikatua	Berrerabili


Aldatu beharrezkoak diren datuak:

- Fakturaren deskribapena
- Lerroen informazioa: deskribapena, kopurua, prezioa, deskontua, BEZA, ...

Faktura osaturik dagoenean, sakatu "FakturaBAI Jaulki".



Jarraitu «Hurrengoa» sakatuz, eta baimena eman faktura egoitza elektronikoa aurkezteko




Hautatu aitortpena aurkezteko modua \*

Internet: BaKQ edo ziurtagiri elektronikoa erabiliz  
Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikora sartuko zara faktura aurkezteko.


Utzi Hurrengoa

Utzi Ados

Ondoren sakatu "Bidali" faktura jaulkitzeko



«Egoitza» txartel birtualean” identifikatuta bazaude, nahikoa da ziurtagiria aukeratzea, «Onartu» botoiari emanda. Ez da beharrezkoa pasahitza edo koordinatuak sartzea.



Bestela, sartu Idazki-k eskatzen dizun sarbide-informazioa (pasahitza eta SMS kodea edo koordinatuak)



## Egoitza Txartel Birtuala erabiltzeko

Izenperen Txartel Birtuala ordenagailuan deskargatu eta instalatzen den aplikazio bat da, eta hura erabiliz edozein egoitza elektronikotan identifikatu ahal izango zara, fakturak sinatzeaz gain.

Instalazioa: sartu [Izenperen txartel birtualaren](#) deskargara orrira eta deskargatu bertsio egokiena. Instala ezazu sinadurak egiteko ere [Idazki Desktop](#) tresna.

Aplikazio biak instalatu ondoren:

1. Hasierako menuko Izenpe karpeta edo mahaigainean “Egoitza txartel birtuala” lotura aurkituko duzu.



2. Exekutatu aplikazioa eta hasi saioa NANA, pasahitza eta kodea-koordinatuak adieraziz:

EGOITZA TXARTELA BIRTUALA / EGOITZA TARJETA VIRTUAL  
SOLICITA SU AUTENTICACIÓN  
Inserte su DNI y contraseña para acceder

DNI / NIE  DNI / NIE

CONTRASEÑA  CONTRASEÑA

¿Olvidó su contraseña?

MÁS INFORMACIÓN SOBRE B@K

CANCELAR ACCEDER

INSERTE LAS SIGUIENTES COORDENADAS DE SU B@K

E M R


BORRAR DATOS

0 3 7 5 1

2 8 6 9 4

CANCELAR CONTINUAR

3. Beheko barran ikusiko da saioa behar bezala hasi den edo arazorik dagoen.



4. Txartel birtuala prest dago BakQrekin identifikatu eta sinatu ahal izateko. Webguneetara sar zaitezke (Zergabidea edo GipuzkoaAtaria) edo dokumentuak sina ditzakezu pasahitza edo koordinatuak berriro sartu beharrik gabe.

\* Txartel birtualaren saioa 30 minutuz egongo da aktibo.

\* Nabigatzaile batzuk ez dira <https://eidas2.izenpe.com> webguneaz fidatzen, eta onartu egin behar duzu..

Gune hau idazki-desktop-delegado irekitzen saiatu da.

<https://eidas.izenpe.com> fitxak aplikazio hau ireki nahi du.

Onartu beti [eidas.izenpe.com](https://eidas.izenpe.com) honelako estekak irekitzeko helbideak erlazioz atutako aplikazioan

Ireki Utzi